DERIOKO UDALA

**Irailaren 30eko Derioko Udalaren alkatetzako 2025-0574 dekretua, Derioko udalerrian erroldatutako langabeak kontratatzea bultzatzeko eta errazteko laguntzak norgehiagoka araubidearen bidez emateko deialdia onartzen duena.**

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru- laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke

(http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index):

Lehenengoa. Onuradunak:

Laguntza horietarako deialdian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten lan-kontratuak egiten dituzten enpresak, profesionalak edo entitateak, euren egoitza soziala eta fiskala Bizkaian edo bertan kokatutako lantoki batean dutenak bakarrik izan daitezke onuradunak.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua Derioko udalerrian erroldatuta eta Lanbiden, Euskal Enplegu Zerbitzuan, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeen kontratazioa bultzatzea eta erraztea da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Derioko Udaleko web orrian argitaratutako oinarriak.

https://www.derio.eus/herritarrak/dirulaguntzak/

Laugarrena. Zenbatekoa:

14.000€

Kontratatzeko 7 dirulaguntza emango dira, 2.000 eurokoa bakoitza.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak eta kontratuen frogagiriak aurkezteko epea oinarriak Bizkaiko Aldizkari

Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko otsailren 28ra artekoa izango da.

Derio, 2025eko urriaren 8a

Alkatea, Esther Apraiz

**Derioko Udala**
Herriko plaza 3, Derio. 48160 (Bizkaia). Tel. 944541019. Faxa: 944542832